# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 2755

305/1995 DEKRETUA, ekainaren 20koa, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituena.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzeari buruzko urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuko 4. atalean eta gehigarrizko xedapenetatik lehenengoan jasotakoaren arabera, dekretu honek, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen ditu.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8,c) eta 25. atalek egozten dizkidaten ahalmenei jarraiki eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko ekainaren 20an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA.– LEHENDAKARITZA

*1. atala.*– Ihardute alorrak.

Jaurlaritzaren bozeramailetza, gizarte ea erakunde harremanak, analisi eta komunikazioa, emakumea eta kanpo harremanak dira Lehendakaritzak bereganaturik dituen alorrak, horrela finkatzen baita Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzeari buruzko urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuko 4. atalean.

*2. atala.*– Egitura.

Aurreko atalean adierazitako alorrei buruzko egitekoez baliatzeko, honako organo hauetan egituratzen da Lehendakaritza:

I.– Lehendakaritzaren Idazkaritza.

– Zerbitzu Zuzendaritza.

II.– Analisi eta Komunikaziorako Idazkaritza Nagusia.

a) Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritza
b) Argibide eta Azterlan Zuzendaritza
c) Analisi eta Egitasmo Zuzendaritza

III.– Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.

IV.– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia:

a) Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritza
b) Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza
c) Europako Gaietarako Zuzendaritza

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 2755

DECRETO 305/1995, de 20 de junio, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno - Lehendakaritza.

De conformidad con lo previsto en el artículo 4 y en la Disposición Adicional Primera del Decreto 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, el presente Decreto establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno - Lehendakaritza.

En virtud de las facultades que me confieren los artículos 8,c) y 25 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de junio de 1995,

DISPONGO:

CAPÍTULO I.– PRESIDENCIA DEL GOBIERNO - LEHENDAKARITZA.

*Artículo 1.*– Áreas de actuación.

La Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza tiene asignadas las áreas de Portavoz del Gobierno, Relaciones Sociales e Institucionales, Análisis y Comunicación, Mujer y Acción Exterior, según lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 1/1995, de 3 de enero de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

*Artículo 2.*– Estructura.

Para el ejercicio de las funciones relativas a las áreas señaladas en el artículo anterior, la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza se estructura en los siguientes órganos:

I.– La Secretaría de la Presidencia:

– La Dirección de Servicios

II.– La Secretaría General de Análisis y Comunicación:

a) La Dirección de Prensa y Comunicación
b) La Dirección de Información y Estudios
c) La Dirección de Análisis y Proyectos

III.– La Secretaría General de Relaciones Sociales e Institucionales

IV.– La Secretaría General de Acción Exterior:

a) La Dirección de Relaciones con las Colectividades Vascas
b) La Dirección de Cooperación al Desarrollo
c) La Dirección para Asuntos Europeos

d) «Euskadiren Ordezkaritza, Bruselan»

Lehendakaritzaren Idazkaritzako eta Idazkaritza Nagusietako titularrek, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean xedatutakoaren ondorioetarako, sailburu maila izango dute.

*3. atala.*– Kanpo Harremanetarako ordezkaria.

1.– Lehendakariak, kanpo harremanetarako alorrean dagozkion egitekoak burutzeko, Kanpo Harremanetarako ordezkari baten laguntza izango du.

2.– Kanpo Harremanetarako ordezkaria lehendakariak izendatuko du baita kargutik kendu ere. Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean jasotako ondorioetarako sailburuordearen maila izango du.

*4. atala.*– «Emakunde» erakunde autonomoa.

Emakumaren Euskal Erakundea/Instituto Vasco de la Mujer (Emakunde) erakunde autonomoa Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikita gelditzen da.

*5. atala.*– Atxikipenak.

1.– Honako batzorde hauek atxikitzen zaizkio Jaurlaritzaren Lehendakaritzari:

– Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordea (apirilaren 18ko 151/1989 Dekretua; uztailaren 12ko EHAA, 133 zk.).
– Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordea (otsailaren 2ko 13/1993 Dekretua; otsailaren 19ko EHAA, 34 zk.).
– Hirugarren Munduaren Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoa kudeatzeko Batzordea (apirilaren 11ko 233/1995 Dekretua; maiatzaren 15eko EHAA, 90 zk.).

2.– Honako hauek ere atxikitzen zaizkio Lehendakaritzari:

– Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea (apirilaren 11ko 234/1995 Dekretua; maiatzaren 15eko EHAA, 90 zk.).
– Registro de Centros Vascos - Euskal Etxeak (uztailaren 28ko 318/1994 Dekretua; abuztuaren 26ko EHAA, 162 zk.).
– Akitania-Euskadi Lankidetzarako Fondua (irailaren 21eko 268/1993 Dekretuz aldatutako ekainaren 9ko 410/1991 Dekretua; urriaren 27ko EHAA, 206 zk.).

## II. ATALBURUA.– LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA

*6. atala.*– Egitekoak.

Lehendakaritzaren Idazkaritza lehendakariaren menpe egongo da zuzen-zuzenean, eta egiteko hauek izango ditu:

a) Bere zereginetarako lehendakariak behar dituen argibide politikoak eta teknikoak eskeini. Honek ez du ekarriko sailburuen egitekoak gutxitzea.

d) La Delegación de Euskadi en Bruselas

Los titulares de la Secretaría de la Presidencia y de las Secretarías Generales tendrán, a efectos de lo dispuesto en la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, el rango de Viceconsejeros.

*Artículo 3.*– Comisionado para las Relaciones Exteriores.

1.– Para el ejercicio de las atribuciones que corresponden al Lehendakari en materia de Acción Exterior, estará asistido por un Comisionado para las Relaciones Exteriores.

2.– El Comisionado para las Relaciones Exteriores será nombrado y cesado por el Lehendakari, y a los efectos previstos en la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, tendrá el rango de Viceconsejero.

*Artículo 4.*– Organismo Autónomo «Emakunde».

Está adscrito a la Presidencia del Gobierno el Organismo Autónomo Administrativo Emakumearen Euskal Erakundea/Instituto Vasco de la Mujer (Emakunde).

*Artículo 5.*– Adscripciones.

1.– Quedan adscritos a la Presidencia del Gobierno - Lehendakaritza las siguientes Comisiones:

– Comisión Interdepartamental de Publicidad (Decreto 151/1989, de 18 de abril, B.O.P.V. n.º 33, de 12 de julio).
– Comisión Interdepartamental de Acción Exterior (Decreto 13/1993, de 2 de febrero, B.O.P.V. n.º 34, de 19 de febrero).
– Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo (Decreto 233/1995, de 11 de abril; B.O.P.V. n.º 90; de 15 de mayo).

2.– Se adscriben, así mismo, a Lehendakaritza:

– Consejo Asesor de Relaciones con las Colectividades Vascas (Decreto 235/1995, de 11 de abril; B.O.P.V. n.º 90; de 15 de mayo).
– Registro de Centros Vascos - Euskal Etxeak (Decreto 318/1994, de 28 de julio; B.O.P.V. n.º 162, de 26 de agosto).
– Fondo para la Cooperación Aquitania-Euskadi (Decreto 410/1991, de 9 de junio, modificado por Decreto 268/1993, de 21 de septiembre; B.O.P.V. n.º 206, de 27 de octubre).

## CAPÍTULO II.– SECRETARÍA DE LA PRESIDENCIA

*Artículo 6.*– Funciones.

Corresponde a la Secretaría de la Presidencia, bajo la dependencia directa y jerárquica del Lehendakari:

a) Proporcionar al Lehendakari la información política y técnica que le sea precisa, para el ejercicio de sus responsabilidades, sin merma de las funciones que corresponden a los Consejeros como titulares de los Departamentos.

b) Jaurlaritzaren iharduna zuzendu eta koordinatzeko laguntza eman lehendakariari. Horretaz gain, aholkularitza eskeiniko dio eskatzen dionean.

c) Xedapen orokorrei eta akordioei buruzko proiektuak gertatu eta horien proposamena egin. Lehendakaritzaren egitekoen eta ihardute-alorren esparruaren barne sartzen diren zirkularrak, jarraibideak eta egintzak eman.

d) 1. atalean jasotakoaren arabera Lehendakaritzari dagozkion egitekoak eta ihardute-alorrak koordinatu, suspertu eta gainbegiratu. Guztientzat diren zerbitzuen kudeaketa zuzendu.

e) Jaurlaritzaren sailekiko eta Lehendakaritzarekin zerikusirik duten erakundeekiko komunikazioa sortzeko organo lez ihardun; eta hori, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezarritakoaren arabera Jaurlaritzako kideek Lehendakaritzarekin duten zuzeneko harremanaren eta dekretu honek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari egozten dizkion harremanen kaltetan gabe.

f) Kontratazio organo lez ere ihardungo du, organo horiei indarrean dagoen antolamendu juridikoak jartzen dizkien ahalmenei eta murriztapenei jarraiki. Guzti hori, kontratazio alorrean Euskadiren Bruselako Ordezkaritzaren titularrari dagozkion ahalmenen kaltetan gabe.

g) Lehendakaritzaren eskuduntza diren espedienteak izapidetzeko beharrezkoak diren gastuetarako baimenak, zenbatekoaren arabera Jaurlaritzaren Kontseiluari dagozkionen kaltetan gabe.

h) Lehendakaritzako langilegoaren plangintza, kontrola eta kudeaketa koordinatu. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 10.1 atalean jasotako egitekoak burutzeko eskuduntza duen organoa da.

i) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak Lehendakaritzari egozten dizkion gainerako egiteko guztiak, baldin eta beste organo bati egotzitakoak ez badira.

*7. atala.*– Zerbitzu Zuzendaritza.

Honako hauek dagozkio Zerbitzu Zuzendaritzari:

a) Jaurlaritzaren sailekiko eta Lehendakaritzarekin zerikusirik duten erakundeekiko komunikazioa sortzeko organo lez ihardun. Bere eskuduntzapekoak diren alorretan sailen arteko batzorde eta kontseiluetan parte hartu.

b) Lehendaritzaren aurrekontuari buruzko aurreproiektua gertatu, horren jarraipena egin eta Lehendakaritzaren kudeaketa ekonomiko administratiboa gauzatu.

c) Jaurlaritzako Lehendakaritzari atxikitako langileen administrazioa eta kudeaketa. Zigorbide espedienteak izapidetzeko eskuduntza duen administrazio mailako organoa da.

d) Langileen premiak ebaluatu eta Lehendakaritzako lanpostu–zerrendaren proposamena gertatu.

b) Prestar al Lehendakari el apoyo preciso para dirigir y coordinar la Acción de Gobierno, así como asesorarle en las materias que se le requieran.

c) Elaborar y proponer al Lehendakari los proyectos de disposiciones generales y acuerdos, y dictar las circulares, instrucciones y actos necesarios en el ámbito de las funciones y áreas de actuación de Lehendakaritza.

d) La coordinación, el impulso y la supervisión de las funciones y áreas de actuación que corresponden a Lehendakaritza en virtud de lo previsto en el artículo 1, así como la dirección de la gestión de los servicios comunes.

e) Actuar como órgano de comunicación con los Departamentos del Gobierno y con los organismos que tengan relación con la Presidencia, sin perjuicio de la relación directa que con ésta mantengan los miembros del Gobierno, de conformidad con lo establecido en la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y de las relaciones que el presente Decreto atribuye a la Secretaría General de Acción Exterior.

f) En materia de contratación ostenta la condición de órgano de contratación, con las facultades y limitaciones que el ordenamiento jurídico vigente atribuye a los mismos. Todo ello sin perjuicio de las facultades que en materia de contratación corresponden al titular de la Delegación de Euskadi en Bruselas.

g) Las autorizaciones de gasto precisas para la tramitación de expedientes competencia de Lehendakaritza, sin perjuicio de las que por razón de la cuantía correspondan al Consejo de Gobierno.

h) La coordinación de la planificación, control y gestión en materia de personal de Lehendakaritza, siendo el órgano competente para el ejercicio de las funciones recogidas en el artículo 10.1. de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de Función Pública Vasca.

i) Y todas aquellas funciones que el ordenamiento jurídico vigente atribuya a Lehendakaritza, y que no estén atribuidas expresamente a otro órgano.

*Artículo 7.*– Dirección de Servicios.

Corresponde a la Dirección de Servicios:

a) Actuar como órgano de comunicación con los Departamentos del Gobierno y con los Organismos y Entidades que tengan relación con Lehendakaritza, y participar en las Comisiones y Consejos interdepartamentales en las materias de su competencia.

b) Elaborar el anteproyecto de presupuesto de la Presidencia del Gobierno - Lehendakaritza, y ejercer el seguimiento del mismo, así como llevar a cabo la gestión económico-administrativa de la Presidencia.

c) Administrar y gestionar el personal adscrito a la Presidencia del Gobierno, siendo el órgano administrativo competente para la tramitación de los expedientes disciplinarios.

d) Evaluar las necesidades de personal y elaborar la propuesta de relación de puestos de trabajo de la Presidencia.

e) Gizarte ekintzarako eta langileak prestatzeko eta hobetzeko planak eta programak gertatu, gai honetan HAEEk bereganatuta dituen aginpideen kaltetan gabe.

f) Barne antolaketarako metodoak eta argibide sistemak proposatu, lan-sistemak arrazionalizatzeko eta hobetzeko.

g) Jaurlaritzaren Lehendakaritzako bulegoen barne erregimenaz eta horren administrazioaz arduratu baita ondarearen eta hornigaien iraunarazpenaz ere.

h) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak egozten dizkion guztiak.

III. ATALBURUA.– IDAZKARITZA NAGUSIAK

*8. atala.–* Analisi eta Komunikaziorako Idazkaritza Nagusia

1.– Analisi eta Komunikaziorako Idazkaritza Nagusia lehendakariaren menpe egongo da zuzen-zuzenean, eta egiteko hauek izango ditu:

a) Alorkako ihardute-planei eta ekimenei buruzko argibide–prozedura egokiak ezarri eta horiei iraunarazi, lehendakariak Jaurlaritzaren ekintza koordinatzeko lagungarria izan daitezen.

b) Erakundeetan parte hartzen duenean lehendakariari lagungarria izan dakiokeena eskatu Jaurlaritzako sailei.

c) Jaurlaritzak parte hartzen duen alorretako gizarte egoera eta bilakaerari buruzko azterlan, txosten edo ekintzak prestatu, Jaurlaritzako Lehendakaritzak horien berri izan dezan.

d) Jaurlaritzak komunikabideen aurrean duen berriemate–politika zehaztu eta koordinatu.

e) Gizartea sentiberatzeko saio edo neurriak proposatu eta koordinazioa bermatu. Eusko Jaurlaritzaren eta sailen ekintzen zabakundeari ekin.

f) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak egozten dizkionak.

2.– Analisi eta Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiko zuzendaritzak:

– Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritza
– Argibide eta Azterlan Zuzendaritza
– Analisi eta Egitasmo Zuzendaritza

*9. atala.–* Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritza.

Prentsa eta Komunikazio Zuzendaritzaren egitekoak:

a) Eusko Jaurlaritzaren ekintzen berri era egokian eman, lehendakariari eta Jaurlaritzaren bozeramaileari bururuzkoak ere bai.

b) Berriemate-lana erraztu eta Jaurlaritzaren sailetako prentsa zerbitzuen koordinazioa eta eraginkortasuna bermatu.

c) Komunikabideen aurrean Jaurlaritzak duen berriemate–politika koordinatu eta zehaztu.

d) Publizitate alorrean sailen zeregina erraztu eta gizartea sentiberatzeko kanpaina edo neurrien koordi-

e) Preparar planes y programas de acción social, formación y perfeccionamiento del personal, sin perjuicio de las atribuciones del I.V.A.P. en esta materia.

f) Proponer métodos de organización interna y sistemas de información en orden a la racionalización y mejora de los sistemas de trabajo.

g) Mantener el régimen interior de las dependencias de la Presidencia del Gobierno, llevar su administración y velar por la conservación de su patrimonio y equipamiento.

h) Y todas aquéllas que le atribuye el ordenamiento jurídico vigente.

CAPÍTULO III.– SECRETARÍAS GENERALES

*Artículo 8.–* Secretaría General de Análisis y Comunicación

1.– Corresponde a la Secretaría General de Análisis y Comunicación, bajo la dependencia directa y jerárquica del Lehendakari:

a) Establecer y mantener los adecuados procedimientos de información sobre los planes de actuación e iniciativas sectoriales, al objeto de facilitar la coordinación de la acción gubernamental por parte del Lehendakari.

b) Recabar de los distintos Departamentos del Gobierno la asistencia que precise el Lehendakari para sus intervenciones institucionales.

c) Realizar cuantos estudios, informes y acciones sean precisos para mantener informada a la Presidencia del Gobierno de la situación y evolución de la realidad social en las áreas de actuación gubernamental.

d) Definir y coordinar la política informativa del Gobierno ante los medios de comunicación.

e) Proponer la realización y garantizar la coordinación de las campañas o medidas de sensibilización social, así como las de difusión de las acciones del Gobierno Vasco y sus Departamentos.

f) Y todas aquéllas que le atribuye el ordenamiento jurídico vigente.

2.– Integran la Secretaría General de Análisis y Comunicación:

– La Dirección de Prensa y Comunicación.
– La Dirección de Información y Estudios.
– La Dirección de Análisis y Proyectos.

*Artículo 9.–* Dirección de Prensa y Comunicación.

Corresponde a la Dirección de Prensa y Comunicación:

a) Garantizar la adecuada cobertura informativa de las acciones del Gobierno Vasco, incluidas las relativas al Lehendakari y al Portavoz del Gobierno.

b) Facilitar la labor informativa y garantizar la coordinación y la eficacia de los servicios de prensa de los distintos Departamentos del Gobierno.

c) Definir y coordinar la política informativa del Gobierno ante los medios de comunicación.

d) Facilitar la labor publicitaria de los Departamentos y garantizar la coordinación de las campañas o

nazioa bermatu Publizitateko Sailarteko Batzordearen bidez (apirilaren 18ko 151/1989 Dekretuz eta apirilaren 30eko 287/1991 Dekretuz arautútakoa) eta Publizitate Zerbitzuaren bidez, eta Jaurlaritak egindako lanaren irudi baterakoia zabaldu gizartean zehar.

e) Euskal Autonomi Elkartearen irudia kanpoan zabaltzeko diren berriemate- eta publizitate-iharduketak sustatu eta koordinatu, Publizitate Zerbitzuaren bidez.

f) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak egozten dizkion guztiak.

*10. atala.*– Argibide eta Azterlan Zuzendaritza.

Argibide eta Azterlan Zuzendaritzaren egitekoak:

a) Jaurlaritzaren iharduketei buruz aldian-aldian txostenak gertatu.

b) Horiek aztertzea Jaurlaritzaren Kontseiluari eta, behar bada, Ekonomi Arazoetarako Ordezko Batzordeari dagokieneko gaiei buruz aholkuak eman.

c) Legebiltzarreko agerraldiak tajutzen Lehendakaritzako organoei sorospena eman. Lehendakaritzak Arartekoarekin eta erakunde publiko batzuekin izan ditzan harremanak koordinatu eta bideratu horretarako aginpideak dituzten organoen bidez.

d) Lehendakaritzako idazkariak egotz diezazkion proiektuak, hots, arau, xedapen, itun eta akordioei buruzkoak, gertatu, eta Lehendakaritzako organoei sorospen juridikoa eman.

e) Lehendakaritzako Idazkaritzaren liburuen eta agirien bilgoa antolatu eta kudeatu.

f) Gizarteak bizi duen egoeraren bilakaeraren berri unean–unean izan Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen bidez.

g) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak egotz diezazkionak.

*11. atala.*– Analisi eta Egitasmo Zuzendaritza.

Analisi eta Egitasmo Zuzendaritzaren egitekoak:

a) Jaurlaritzaren gidaritzarako eta koordinaziorako onuragarriak izango diren berariazko plan eta egitasmoak gertatu.

b) Gizarte eta ekonomiaren alorretan lehendakariaren ardurapekoak izan daitezkeen arazo eta eskaeren berri Lehendakaritzari emateko behar beste azterlan eta txosten landu.

c) Sailarteko eta erakundeen arteko programak koordinatu, horien zuzendaritza eta/edo jarraipena Lehendakaritzari dagokionean.

d) Ekonomi eta gizarte alorretako eragileekin argibide–prozedura egokiak ezarri eta horiei eutsi Euskal Autonomi Elkartearen abagune ekonomiko eta industrialaren prospekzio analisiak burutzeko.

e) Iharduketa planen eta alorkako ekimenen jarraipen eta gidaritzan lehendakaria urgazteko behar besteko aholkuak eman.

f) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak egotz diezazkion guztiak.

medidas de sensibilización social, a través de la Comisión Interdepartamental de Publicidad, regulada por Decretos 151/1989, de 18 de abril, y 287/1991, de 30 de abril, y del Servicio de Publicidad, a fin de transmitir a la sociedad una imagen unitaria y coherente de la labor del Gobierno.

e) Impulsar y coordinar todas aquellas actuaciones informativas y publicitarias encaminadas a divulgar la imagen institucional de Euskadi en el exterior, a través del Servicio de Publicidad.

f) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico vigente.

*Artículo 10.*– Dirección de Información y Estudios

Corresponde a la Dirección de Información y Estudios:

a) La elaboración de informes periódicos sobre las actividades del Gobierno.

b) Asesorar sobre los asuntos cuya deliberación corresponde al Consejo de Gobierno y, en su caso, a la Comisión Delegada para Asuntos Económicos.

c) Asistir a los órganos de la Presidencia en la elaboración de intervenciones parlamentarias, así como coordinar y canalizar, a través de los órganos competentes, las relaciones de Lehendakaritza con el Ararteko y otras Instituciones Públicas.

d) Elaborar los proyectos de normas, disposiciones, convenios y acuerdos que le sean encomendados por el Secretario de la Presidencia, y prestar asistencia jurídica a los órganos de la Presidencia.

e) La organización y gestión del fondo bibliográfico y documental de la Secretaría de la Presidencia.

f) Mantener una información actualizada de la situación y evolución de la realidad social, a través del Gabinete de Prospección Sociológica.

g) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico vigente.

*Artículo 11.*– Dirección de Análisis y Proyectos.

Corresponde a la Dirección de Análisis y Proyectos:

a) La elaboración de planes y proyectos específicos dirigidos a facilitar la dirección y coordinación del Gobierno.

b) Realizar cuantos estudios e informes sean precisos para mantener informada a la Presidencia sobre los problemas y demandas que requieran la atención del Lehendakari en materia socio-económica.

c) La coordinación de programas de carácter interdepartamental e interinstitucional, cuya dirección y/o seguimiento corresponda a la Lehendakaritza.

d) Establecer y mantener los adecuados procedimientos de información con agentes económicos y sociales para realizar análisis prospectivos de la coyuntura económica e industrial de Euskadi.

e) Prestar el asesoramiento que sea preciso para asistir al Lehendakari en el seguimiento y dirección de planes de actuación e iniciativas sectoriales.

f) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico vigente.

*12. atala.*– Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.

Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Idazkaritza Nagusia lehendakariaren menpe egongo da zuzen-zuzenean, eta egiteko hauek izango ditu:

a) Lehendakariak gizarteko eragileekin, herritarrekin eta erakundeekin harremanak eukitzeko plana gertatu, gauzatu eta ebaluatu.

b) Lehendakariak parte har dezan ekintza ofizialen antolaketa eta horien garapen egokia bermatu, eta Jaularitzako beste kide batzuk horietan parte har dezateneko ekintzak koordinatu.

c) Lehendakaritzaren harreman publikoetan beharrezkotzat jotzen diren ekintzak burutu.

d) Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin koordinatuz, lehendakariak kanpora egin behar dituen bidaiei bidezkoa den urgazpen logistikoa eman.

e) Lehendakaritzari eta Jaurlaritzako goi-kargudunei Protokoloaren araubidea aplikatu.

f) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak egotz diezazkion guztiak.

*13. atala.*– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.

1.– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia lehendakariaren menpe egongo da zuzen-zuzenean, Lehendakaritzako idazkariari beren-beregi egozten zaizkion ahalmenen kaltetan gabe. Sorotsi egiten dio lehendakariari Euskal Autonomi Elkarteko kanpo-ekintzaren estrategia, bai politikoa zein instituzionala, zehaztu eta zuzentzen.

Eusko Jaurlaritzak kanpoan duen presentzia planifikatu, koordinatu eta horri laguntza eskeintzea eta Kanpo Harreemanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokio. Halaber, Europako Batasunarekin, Estatuaren maila baino apalagoa duten beste entitate batzuekin edo herrialdearteko zein nazioarteko erakundeekin Eusko Jaurlaritzak izan ditzan harremanez arduratuko da.

Garapen lankidetzerako eta kanpoko euskal gizataldeekiko Jaurlaritzaren politika burutu eta kudeatzen duen organoa ere bada Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.

2.– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, Euskal Autonomi Elakarteari dagozkion eskuduntzen esparruan, honako egiteko hauek ditu bereganatuta:

a) Eusko Jaurlaritzaren kanpo harremana programatu, suspertu eta koordinatu.

b) Euskal Autonomi Elkarteak Europako Herrialdeen Asanbladarekin eta Euskal Autonomi Elkarteak horietan parte hartzen duneko herrialdearteko organo eta entitateekin izango dituen harremanak koordinatu eta bideratu.

c) Nazioarteko gainerako erakundeekin Jaurlaritzak izan ditzan harremanak bultzatu eta koordinatu. Beste horrenbeste egingo du erakunde eta entitate publiko edo pribatuekin, baldin eta euren kanpo-ekintzak garrantzizkoak badira. Hori, Jaurlaritzako sailei beren-

*Artículo 12.*– Secretaría General de Relaciones Sociales e Institucionales.

Corresponde a la Secretaría General de Relaciones Sociales e Institucionales, bajo la dependencia directa y jerárquica del Lehendakari:

a) Proceder a la elaboración, ejecución y evaluación del plan de relaciones del Lehendakari con los agentes sociales, los ciudadanos y con las distintas Instituciones.

b) Garantizar la adecuada organización y desarrollo de los actos oficiales en los que participe el Lehendakari, así como la coordinación de aquellos en los que participen otros miembros del Gobierno.

c) Llevar a cabo las acciones precisas en el ámbito de las relaciones públicas de la Presidencia.

d) Prestar la cobertura logística oportuna a los viajes del Lehendakari al exterior, en coordinación con la Secretaría General de Acción Exterior.

e) La aplicación, con respecto a la Presidencia y altos cargos del Gobierno, del régimen de Protocolo.

f) Y todas aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico vigente.

*Artículo 13.*– Secretaría General de Acción Exterior.

